

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

50 eta 69 urte arteko 80.000 nafar kolon eta ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programan sartuko dira 2017a bitarte

Dominguez kontseilariak gaur goizean aurkeztu du programaren bigarren fasea, eta harekin foru-lurralde guztian zabaldua geratuko da

Viernes, 15 de enero de 2016

[Kolon eta ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programa](#)n 50 eta 69 urte arteko 80.000 nafar inguru sartuko dira (osasuneko oinarriko 34 guneri atxikitakoak); hala, Nafarroa guztian zabaldua geratuko da. Programa adin-tarte horretako 166.000 pertsonak osatutako biztanleriarentzat da, eta haietatik 86.000 ingururi programan parte hartzeko gonbita luzatu zaie 2013ko azaroan hasi zenetik.

Kolon eta ondesteko minbizia Nafarroan sarrien diagnostikatutako tumorea da, minbiziagatik emakumezkoetan heriotza gehien sortzen duen lehen arrazoa izanik eta bigarrena, gizonezkoetan.

Haren tratamendu eta sendatzea errazagoa da garaiz detektatzen bada, eta goiz diagnostikatzen denean, % 90 sendatzen da. Aldiz, aurreratutako faseetan diagnostikatzen bada, biziraupena % 50era murrizten da.

Osasuneko kontseilari Fernando Dominguezek programako fase berri honetako xehetasunak aurkeztu ditu gaur goizean; gainera, aurreko bi urteetan programan jadanik sartutako zonaldeak berriz parte har dezaten eskatuko zaie. Harekin batera izan dira Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzaile M^a José Pérez Jarauta eta Epidemiologia Zerbitzuko eta Osasun Prebentzioko buru Nieves Ascunce.

Zonalde berriak jasotzeko egutegia

Hala, programaren [egutegi](#)aren arabera, 2016ko urtarril eta ekain artean gonbidapena bidaliko zaie Tafalla, Barañain, Cintruenigo, Artaxoa,



Kolon eta ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programaren 2. fasea hasiko da.

Berriozar, Antzin-Ameskoa, Gares eta Noingo biztanleei; eta urteko bigarren seihilekoan, Burlata, Zizur, Los Arcos, Allo, Villatuerta, Zarrakaztelu eta Antsoaingoei.

2017an, ekainera arte deituko dira: Buñuel, Erriberri, Azkoien, Ultzama, Elizondo, Lesaka, Orkoien, Lodosa, Doneztebe, Zangoza, Agoitz, Salazar eta Valtierra-Cadreita, eta bigarren seihilekoan, Nafarroa guztia hartuko da gonbidapenak Leitza, Cascante, Viana, Irurtzun, Altsasu eta Etxarri-Aranatzera bidaliz.

Aldi berean, programa jadanik zabalduko udalerrietan bizi diren pertsonen gonbita luzatuko zaie berriz. Gogora ekarri behar da, garaiz detektatzeko programak eginkarrietan ezkutatuak odolaren testa etxean bertan egitea aurreikusten duela; hala, kolon eta ondesteko tumoreak fase goiztiarretan detektatu ahalgo dira, eta proba hori bi urtetik behin egin behar da.

Datozen egunotan komunikazio-kanpaina bat abian jarriko da 172.000 nafarrek programan parte hartu edo bertan jarraitu dezaten. Kanpainak "la Caixa"-ren Gizarte Ekintzaren laguntza du; azken horrek 25.000 euro jarriko ditu informazioko mikroespazioak egiteko, eta Nafarroako irati-etxetan laster emitituko dira.

Gogoratuko denez, Nafarroako Gobernuak 2013ko azaroan abian jarritako programa Foru Komunitatean bizi diren 50 eta 69 urte arteko pertsona guztientzat da, eta garapen-fase goiztiarrean dauden kolon eta ondesteko tumoreak detektatzea du xede; hala, biziraupena % 90eta igo ahalgo zen.

Behin-behineko emaitzak

3.634 kolonoskopia egin dira orain arte beren etxean egindako odoleko testak positibo eman zuen pazienteen kasuan: 2.716 Nafarroako Ospitalegunean, 525 Tuterako Reina Sofia ospitalean eta 380 Lizarrako Garcia Orcoyen ospitalean. Haietatik heren baten kasuen emaitza normala da edo patologia garrantzitsurik gabekoa, eta ez dute jarraipen berezirik beharrik; beste heren batean arrisku ertaineko polipoak baieztatzen dira, eta kolonoskopia egin behar zaie 3 urteko tartean; azken heren baten kasuan, berriz, izaera adierazgarria duten patologia onberak baieztatzen dira, arrisku handiko polipoak edo minbizi inbaditzaileak, programaren xede den patologia. Orain arte, arrisku handiko 796 polipo detektatu dira eta 203 tumore inbaditzaile.

Behin-behineko datuek berresten dute gizonezkoen artean gaitz hori izateko arrisku handiagoa dagoela; parte hartu duten 1.000 gizonetatik, 6 kasutan tumore inbaditzaile gaiztoa detektatu da eta 26tan, arrisku handiko adenoma bat (polipoa); emakumeen kasuan, berriz, 1.000 esplorazio egin ondoren, 3 tumore inbaditzaile eta arrisku handiko 8 adenoma baieztatu dira.

Espero zen moduan, tumore inbaditzaileen % 75 garaiz detektatu dira, eta kasu horietan tratamendua askoz leunagoa izango da; sintomak azaldu izanaren ondorioz fase aurreratuago batean detektatuko gaitzaren kasuan, berriz, tratamendua askoz gogorragoa da.

Aipatu beharra dago, Corella, San Jorge, Arrotxapea eta Sarrigurengo informazioa oraindik zenbatzeke dagoenean (irekita daude), programan % 67k parte hartu duela (% 65, gizonezkoetan eta % 68, emakumezkoetan). Partaidetza-maila horrek hasierako helburua 7 puntutan gainditzen du (% 60koa da), eta Espainia nahiz Europako altuenetakoa da era honetako programa-motetan.

Bitza-estiloak eta kolon eta ondesteko minbiziaren prebentzioa

Nafarroako Minbizi Erregistroko datuen arabera (2008-2009), bi urte horietan Nafarroan kolon eta ondesteko 978 minbizi kasu izan ziren, tumore guztien % 15,60. Sexuaren arabera, bigarren postuan dago gizonetan (603 kasu) eta emakumetan (375). 2008-2012 epean, arrazoi hori dela eta Nafarroan 232 gizon hil ziren batez beste (minbiziagatik hildako kopuruaren % 13,11) eta 86 emakume (guztiaren % 14,90); gizonezkoen bigarren postuan dago, eta emakumezkoetan, lehenengoan.

Minbizi mota hori prebenitzeko bitza-estilo osasungarriak izatea garrantzitsua da, eta horren barnean sartzen da elikadura egokia (haragi gorria, prozesatuak neurrian jatea, suaren gainena zuzenean asko egindako edo ongi egindakoak neurrian jatea; zuntz askoko eta koipe gutxiko elikagaiak jatea, esnea eta esnekien kontsumoa sustatzea, elikagaietan dauden kaltzioa eta D bitamina behar bezala hartzea);

ariketa fisikoa egitea (egunean ordu erdiz ibiltzea gutxienez intentsitate ertainean), sedentarismoa eta obesitatea saihesteko; eta alkohola eta tabakoa ez kontsumitzea, besteak beste.